

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4790

EBAZPENA, 2022ko urriaren 27koa, Kulturako sailburuordearena, 2022-2024 aldirako Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko dirulaguntzak emateko dena.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez (maiatzaren 25eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 100. zk.), 2022-2024 aldirako Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko dirulaguntzak arautu eta haietarako deialdia egin zen. Ekainaren 6ko EHAA, 108. zenbakian, agindu horren hutsen zuzenketa argitaratu zen, eta 16.1 eta 16.2 artikuluetan aldaketak egin ziren.

Eskabideak aurkezteko epea, aipaturiko aginduaren 9. artikuluen arabera, 2022ko ekainaren 27an amaitu zen.

Agindu horren 14. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea 2022ko irailaren 16an bildu zen, eta, eskabideak baloratuta, dirulaguntzak emateari buruzko ebazpen-proposamena egin zuen, eta balorazio-irizpideak ezarri zituen aginduaren 16. eta 17. artikuluekin bat etorritz.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita eta aginduaren 18. artikuluan eta gainerrako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ez onartzea I. eranskinean adierazitako eskabideak, bertan zehaztutako arrazoiengatik.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako pertsona eta erakunde eskatzaileei dirulaguntzak ematea, zehazten diren zenbatekoen arabera. Diruz lagun daitekeen zenbatekoa da, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, dirulaguntza aginduaren 2. artikuluen arabera diruz lagun daitekeena.

Hirugarrena.– Eskatutako dirulaguntza ukatzea III. eranskinean zehazten diren pertsona eta erakundeei, bertan zehaztutako arrazoiengatik.

Laugarrena.– Pertsona eta erakunde onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen aginduan ezarritako baldintzen mendean geratzen dira, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mendean ere.

Bosgarrena.– Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2024ko azaroaren 30ean bukatuko da, dirulaguntza horiek arautzen dituen aginduaren 7. artikuluekin bat etorritz. Dena dela, diruz lagundutako jarduerak 2022ko urtaldian hasi behar dute edo dagoeneko hasita egon behar dute.

Emandako dirulaguntzen justifikazioa eta likidazioa egiteko, aginduaren 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Era berean, kontuan hartu beharko da diruz lagundutako proiektuak, gehienez ere, data hauetarako justifikatu beharko direla:

– 2022an gauzatzekoak diren jarduerak: 2022ko abenduaren 15a baino lehen.

– 2022-2023 epealdian gauzatzekoak diren jarduerak: 2022an gauzatutako jarduerak, 2022ko abenduaren 15a baino lehen; 2023an gauzatutako jarduerak, berriz, 2023ko abenduaren 15a baino lehen.

– 2022-2024 epealdian gauzatzekoak diren jarduerak: 2022an gauzatutako jarduerak, 2022ko abenduaren 15a baino lehen; 2023an gauzatutako jarduerak, 2023ko abenduaren 15a baino lehen, eta 2024ko azaroaren 30era arte gauzatutako jarduerak, 2024ko abenduaren 15a baino lehen.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatzeko, eskabidearekin batera aurkeztu den aurrekontua hartuko da ardaztat, eta, horrekin batera, aginduaren 24. artikuluan ezarritako gainerako alderdiak.

Seigarrena.– Agindu honen babesean eman beharreko dirulaguntzak zatika ordainduko dira, era honetan:

– Lehenengo zatian, emandako dirulaguntzaren herena ordainduko da, behin 19.a) artikuluan aipatutako epea igaro ondoren, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

– Gainerakoa ebazpen honen II. eranskinean ezarritako zatikatzearen arabera ordainduko da, gastua justifikatu ondoren.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikuluekin bat etorritz, herritar orok horren berri izan dezan.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 27a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

ONARTU EZ DIREN ESKABIDEAK

I.1.– Deklaratutako Kultura Ondasun ez diren elementuei buruzko jarduerak izateagatik, eta deklaratzeko espedientea ere ez dutelako ireki, 6/2019 Legearen 9. eta 10. artikuluetako edozein kategoriarekin (betekizun hori aginduaren 2. artikulua ezartzen du):

Eskatzailea	Jarduera	Zergatia
Aramako Udala	Proiektu arkeologikoa Aramako Apaiz-etxean taberna-jatetxea eta hotela eraikitzeko	Ustezko arkeologia-eremua (kultura-ondasun izan gabe)
Kortezubiko Udala	Reparación del Armonium de la iglesia Santiago Apóstol de Kortezubi	Ondasun higigarria, kultura-ondasunaren deklaraziorik eta espedienteari hasiera eman gabe
Zigoitiko Udala	2.ª fase obra rehabilitación ermita de San Esteban de Etxabarri Ibiña como futuro museo etnográfico	Ondasun higiezina, kultura-ondasunaren deklaraziorik eta espedienteari hasiera eman gabe
Inklusart Kultura Integrala	Dantz Point Euskadi	Jardueraren xede diren ondasunak zehaztu gabe
Lupa Asociación Cultural	Ohi azkenak	Jardueraren xedea ez da kultura-ondasun deklaratu

I.2.– Eskatzaileak aginduaren 3. artikuluan dirulaguntzen hartzaileentzat ezarritako baldintzak ez betetzeagatik:

Eskatzailea	Jarduera	Zergatia
Noain Maura, M.ª José	KulturBox	Eskatzailea (pertsone fisikoa) ez da esku-hartzearen xede den ondasunaren jabea (deialdi-aginduaren 3.1 artikulua).

I.3.– Deialdi-aginduaren 2. artikuluan aurreikusitako jarduerak diruz lagungarrietako bat ere ez izateagatik:

Eskatzailea	Jarduera	Zergatia
Mungiago Udala	Landetxo Goikoa baserrian proposatutako jarduerak	Ezin da diruz lagundu kultura-ondasunaren ondare-balioetatik kanpoko gaien/elementuen musealizazioa/zabalkundea

2022ko azaroaren 8a, asteartea

II. ERANSKINA

ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Eskatzailea	Jardura	Puntuak	Zenbatekoa guztira	Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa	Emandako zenbatekoa	2022	2023	2024
Pasaiaiko Portuko Agintaritza	Retirada de fibrocemento de la draga Jaizkibel	74,13	3.15.000,00	260.330,58 ¹	199.274,00	66.424,67	66.424,67	66.424,66
Balmasedako Udala	Puesta en valor y recuperación del Cerro del Castillo	78,74	135.992,00	112.390,08 ¹	95.157,00	31.719,00	31.719,00	31.719,00
Begarako Udala	Amizuriaga eraikinaren ingurutzaila osoaren obrak eta 0 kotarainoko lanak egitea	87,50	617.162,91	617.162,91 ²	235.215,00	78.405,00	78.405,00	78.405,00
Bermeoko Udala	Alde zaharreko espaloiak kentzeko inbertisio plana	68,90	284.129,48	284.129,48 ²	185.215,00	61.738,33	61.738,33	61.738,34
Berrioko Udala	Programa de puesta en valor y difusión de la estación megalítica de Oiz	91,96	82.318,85	68.030,45 ¹	40.855,00	13.618,33	13.618,33	13.618,34
Debako Udala	Debako zubia eta berreraikitze-lanak baliosleko aire zabalean interpretazio gunea sortzeko proiektua	67,50	35.090,00	35.090,00 ²	11.540,00	3.846,67	3.846,67	3.846,66
Elorrioko Udala	Valorización del templo y la necrópolis de Argiheta	71,33	365.799,86	365.799,86 ²	191.747,00	63.915,67	63.915,67	63.915,66
Sopuertako Udala	Territorio y patrimonio. Patrimonio preindustrial en Sopuerta	83,34	17.908,00	17.908,00 ²	14.973,00	4.991,00	4.991,00	4.991,00
Tolosako Udala	Tolosako zezen plazako egokitzearen exekuzio-proiektuaren 4. fasea	83,00	773.353,89	773.353,89 ²	223.118,00	74.372,67	74.372,67	74.372,66
Zaldiondoko Udala	Rehabilitación de la bolera como centro gastronómico	72,87	300.737,51	300.737,51 ²	195.887,00	65.295,67	65.295,67	65.295,66
Zambranako Udala	Puesta en valor y difusión de la Torre del Homenaje del Castillo de Portilla	87,99	100.750,00	100.750,00 ²	90.592,00	30.197,33	30.197,33	30.197,34
Zeraingo Udala	Puesta en valor y difusión del coto minero de Aizpea	77,00	103.437,40	103.437,40 ²	85.642,00	28.547,33	28.547,33	28.547,34
Zumaiaiko Udala	Karmeldar oinutsien komentua birgaitzeko egikaritze-proiektua exekutatuzeko obra	90,00	5.250.607,05	5.250.607,05 ²	241.935,00	80.645,00	80.645,00	80.645,00
Badiola Bergara, Izaskun	Puesta en valor y reutilización del caserío Isuntza Goikoa	75,00	528.004,55	528.004,55 ²	201.613,00	67.204,33	67.204,33	67.204,34
Bilbao Bizkaia Museok	Renovación integral arquitectónica y museográfica del Euskal Museo de Bilbao	68,50	3.108.805,50	3.108.805,50 ¹	184.140,00	61.380,00	61.380,00	61.380,00
Punta Begoña Fundazioa	Recuperación y puesta en valor del monumento Galerías Punta Begoña en Getxo	89,69	262.328,00	216.800,00 ¹	187.382,00	62.460,67	62.460,67	62.460,66
Donostiaiko Gotzaindegia	Donostiaiko Artzai Onaren katedraleko ekialdeko fatxada, beirate eta estalkien zaharberritzea	93,00	2.252.646,14	2.252.646,14 ²	250.000,00	83.333,33	83.333,33	83.333,34
Anoetako San Juan Bataiatzailearen Parrokia	Recuperación de la configuración histórica del pórtico de la parroquia de San Juan Bataiatzailea	73,94	320.000,00	320.000,00 ²	178.887,00	59.629,00	59.629,00	59.629,00
UTE Idiakez Edera	1 fase de la rehabilitación, consolidación y reutilización de Idiakez Edera en Nagusia 80, Azkoitia	69,50	1.040.086,21	715.387,20 ³	186.828,00	62.276,00	62.276,00	62.276,00
			GUZTIRA	GUZTIRA	3.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00

¹ Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean jasotako jardura guztiak, BEZik gabe.

² Diruz lagunduko dira aurkeztutako aurrekontu orokorrean jasotako jardura guztiak, BEZa bane.

³ Aurkeztutako aurrekontu orokorrean jasotako kapitulu guztiak lagunduko dira diruz, BEZik gabe, Kale Nagusiko 80ko fatxada zaharberritzeko obrei eta barne-egokitzapenari dagozkienak izan ezik, oraindik ez baitago egikaritze-proiekturik.

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

III.1.– Agindu arautzailearen 15. artikuluan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa (60 puntu) ez lortzeagatik:

Eskatzailea	Jarduera	Puntuak
Hernaniko K. Nagusiko 51ko jabeen erkidegoa	Rehabilitación de balcón en 1.ª planta	47,50
Etxebarrieta Leniz, Aintzane	Rehabilitación de las carboneras de la ferrería Ereza Ola	55,62
Garaizar Axpe, M.ª Carmen	Redacción de proyecto básico y ejecución de rehabilitación integral del edificio en Plz Nagusia 3, Otxandio	58,47
Korresko Administrazio Batzarra	Recreación virtual y estudio estructural del castillo Portiella	47,50

III.2.– Deialdiaren guztizko aurrekontu-kreditua gainditzeagatik, nahiz eta agindu arautzailearen 15. artikuluan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa (60 puntu) gainditu:

Eskatzailea	Jarduera	Puntuak
Aguraingo Udala	Redacción del proyecto, dirección de obra y rehabilitación del tramo de la Muralla Oeste	61,50
Berastegiko Udala	Berastegiko udaletxeko teilatupea balioan jartzea	66,16
Guardiako Udala	Recreación virtual en recorrido turístico Laguardia/Biasteri	66,00
Mutiloako Udala	Errotatxo eraikina balioan jartzeko eta adinekoentzat gela bat prestatzeko eta artisauentzat gune bat	61,50
Hondarribiko Arantzazuko Andre Maria Parrokia	Hondarribiko parrokiako sakristiaren zaharberritze eta berrerabiltze museistikoaren azterlanak	66,50